

## Erotismoa eta politika

**E**

z nekien, Ur, Katixa, zuta-begintza light postmodernoan ari ginenik. Badirudi pentsamendua izan daitekeela lighta, ez ordea errealitatea, zeina berez den astuna, tragikoa, benetakoa. Ez dakit hala den, baina argi dagoena zera da: errealitateari begiratzeko beste modu bat aurkitu beharra dugula, beste errealitate bat ekoizten saiatzeko eta, beharbada, lightasunak balio digula horretarako. Jakina, gero otsoa bezala sartzen zaizkigu egitate astunak, *garzonkeriatan*, bereak eginez.

Horregatik interesatu zait Sarah Palinen erotismoari buruzko eztabaida, nahiz eta niretako politika eta erotismoa lotzea ia oximorona izan. Badirudi, ordea, beste askorendako botereak baduela bere erotika. Segur aski Palinen erotika gizon heterosexualek domeinatuak izateko duten desio inkontzientean oinarritzen da, areago, krisi garaietan zer hobe aitaren legea deuseztatu eta amaren sabelean bizitze amoltsuarekin amatea baino, bide batez, krisia bera ukatuz.

Gizonen erotika, demagun Putin batena, gordinagoa da, nahiz eta onartu behar dudaren aurpegi zurrinak, begi urdin hotzek beldurra eta desioaren arteko zer edo zer iradokitzen didatela, ziega eta zigorrak ageri diren eszenatoki bat.

Fidel (Mari) erotismoarekiko deuseztaturik, ezkerreko jendeoi *Cheren* erretratu fantasmatikoa, zeinak gabezia seinalatzen baitu, eta Hugo Chavezen nahigabeko imintzio komikoa baino ez zaizkigu gelditzen.

Ez dakit gehiegi Venezuelari ekarri dizkion onurez, baina Don Juan iraultzailearen kariatatura moduan ageri zait erotismo kontutan. Borrokak, batzuen ustez, izan beharko lukeen *sex appeala*, ez didazue ezetz esanen, istriokeriak erabat itoa dauka. Buztana jasotzen zaiola aldarrika eta aldarrika ari den irendu zahar bat ematen du.



Juanjo Olsagarre

Agirre

Apalategi

Silvio Berlusconi, bere alde-tik, boterearen erotismoa erotismo kloniko bihurtu du kirurgia estetikoaren bitartez, erotismo horren bakartasuna eta berezitasuna modako aldi-karien populismo xehera beherratu eta erabat deusezaraziz.

Sarkozyren eta Carlaren artekoaz gehiegi hitz egin da, ez gara arituko beraz, gizon txiki-ekie altuagoak direla emateko duten erotismo puztu hori adierazten duela esateko ez bada.

Eta gurez zer esan? Miguel Sanzen erotismoa, beharbada hurbilegi nagoelakoz, ikusteko ez naiz gauza, baina izan izanen du. Paletoa behar du izan, hori bai, eta pixka bat makarra, petxuko ile artean urrezko katea distiraka eramaten dutenen horien antzekoa.

Ibarretxeren erotismoak sotilagoa izan nahi du, gorputzean beharrenean adimenean oinarriturik dagoela eman nahi du aditzera, baina hori bera du ahuldade, izan ere, erotismoak gorputza behar du helarazteko eta Ibarretxeren gorputza estalita dago, bahitua, esanen genuke.

Askok egin zuten suspirio Arnaldo Otegi HBko Mahai Nazionaleko buru izendatu zutenean. "Horren da goapo" esaten zuten. Eta ezin ukatu dut bazuela zerbait haur bihurri, heldu zentzudun arteko aurpegiak baina hitzek zein errealitateak deuseztatu egin zuten.

Beste batzuk uste dute Patxi Lopez dela euskal politikaren arteko gizonik desiragarriena. Aire inozentea du, eta aldi berean sendotasun alai bat iradokitzen du anteojuen atzean, gorputzak beste zerbait lohiago prometatzen duen bitartean.

Niri, dena den, martxa gehien sortzen didana Idoia Zenarruzabeitia da. Goritasuna igartzen zaio jaka estu eta zurrin horien barnean, euskal ama irentzaile airea eta emearen epeltasun urrumagarria darizkio aldi berean. Diru kontuez asko daki, gainera, oso erotikoa krisi garaian. ■

«  
Martxa gehien sortzen didana Idoia Zenarruzabeitia da.  
Goritasuna igartzen zaio jaka estu eta zurrin horien  
barnean, euskal ama irentzaile airea eta emearen  
epeltasun urrumagarria darizkio aldi berean  
»